# 1930etik...
# Euskal ezkontza

**Euskal ezkontza**

Oraintsura arte uste genuen 1931an ospatu zela lehen euskal ezkontza Lekeition, baina badirudi 1930ean ere ospatu zela, hau da Errepublika ezarri aurretik. 1931ko jai egitarauak irailaren 4rako euskal ezkontza iragarri zuen esanez: *10 1/2-tan, Udal jaun agurgarrijak, Erespatza ta Txistularijak lagun dituela Extramuros deritxon bitxabalera juango dira eta emen Udalburu jaunak agertuko dau bide orreri "Arana-Goiri' tar' Sabin'en uribidia" ixena ezarriko dautson arridaskuna.* ***Igez ain ikusgarrija ixan zan "Aintxiña-erako eskontzea" ikusija ixango da egittada orretan.***

Azkenean, egunkarietan aipamenik aurkitu ezin izan dugun arren, 1930eko programan aurkitu dugu ezkutatuta[1] eta Udal kontuetan:

*Recibí del Ayuntamiento de Lequeitio la cantidad de 250 pesetas por el concurso prestado para la celebración de una Boda a la usanza del País durante las Fiestas de San Antolín del año actual, según convenio verbal.*

*Lequeitio, 10 de Septiembre de 1930*
Andres Ordorica

Badakigu beraz 1930ean egin zela euskal ezkontza; ordurako, Diktablanda garaia, Espainiako gobernuaren kontrol zorrotza asko lasaituta zegoen. Baita badakigu Zarautzen 1924an egin zela eta uste edo esaten da lehenengoa izan zela. Izango zen, ez diegu zarauztarrei eta Mauricio Flores Kaperotxipiri meriturik kendu nahi baina gure eskuetara heldu diren argazki batzuek beste istorio bat kontatu nahi digute. Zoritxarrez inongo informazio barik heldu zaizkigu eta ez dugu ez lekurik ez denborarik sakontzeko. Hurrengo baten agian!







Rufo Atxurra, Yanke familia eta Garamendi familiaren artxiboetako argazkiak

1 NOTAS
Además de los actos que comprende el programa y aparte de los corrientes de iluminaciones, globos, cohetes de fantasía, etc., se organizarán otros importantes festejos, como Desfile de una moda (sic) a usanza del país, Concurso de tipos célebres y feos...



Rufo Atxurra artxiboa

1931ko Euskal Ezkontza (Argazkia Aita Piedadeko ermitaren inguruan).
Goiko aldean akuilua eskuetan Jose Leturia, Manolo Ordorika, Francisca Anakabe, Arantza Ordorika, Mari Erkiaga, Begoña Ordorika, Mari Goikoetxea, Pedro Sarria, Jesus Arrinda eta Bruno Mendiguren.
Erdian Mari Murelaga, Rosa Torrealdea, Justa Goikoetxea, Victoria Zabala, Ana Orue, Genaro Elorriaga, Maria Teresa Erkiaga, Esteban Goikoetxea, Juanita Meabe, Dominga Kortazar eta Ramon Ordorika.
Lurrean jesarrita Martin Aldekoa, Lucio Andres Ordorika, Gregorio Arana, Eusebio Zabala eta Teodoro Abaroa.

# 1931 eta 1932



Lequeitio: Boda a la antigua usanza

COMITIVA DE LA BODA A LA ANTIGUA USANZA, QUE ACOMPAÑA A LOS NOVIOS, EL DÍA DE SAN ANTOLÍN, PATRÓN DE LEQUEITIO. (Fot. Ojanguren).

DISTINGUIDAS SEÑORITAS ATAVIADAS CON LOS TÍPICOS TRAJES DEL PAÍS QUE TOMARON PARTE EN LA GRAN BODA CELEBRADA A LA ANTIGUA USANZA DEL PAÍS VASCO, EN LEQUEITIO, EL DÍA DE SU PATRÓN SAN ANTOLÍN. (Fot. Ojanguren).

Biblioteca Nacional de España

La Hormiga de oro, 29-9-1932

1930ean egin zela frogatu dugu eta 1931 eta 32an egin zela ere jakin dugu, hor dituzue orduko argazkiak. Halaber, ez dirudi euskal ezkontzarik egon zenik 1933an, guk behintzat ez dugu aipamenik ez argazkirik aurkitu. Hurrengo urtean, 1934an, Bilbora joan ziren eta Radio Emisora Bilbainak antolatu zuen jai erraldoian parte hartu zuten. Bilbora joateko eman zioten diru-laguntzaren truke Lekeition Sanantolinetan egitea adostu zuten Udalarekin baina ez dakigu zer gertatu zen. 1935ean ez dugu uste egin zenik eta 36an gerra etorri zen.

Hobeto ikertu beharko litzatekeen gaia da baina guk, esan bezala, ez daukagu astirik horretarako. Batez ere aurrekariak ikertzea izango litzateke interesgarria.

Bagenekien 1934an Radio Emisora Bilbainak Lekeitioko euskal ezkontza gonbidatu zuela Bilboko abuztuko jaietara[1] baina ez genekien joan zirenik. 1934-8-19ko *Euzkadi* egunkarian aurkitu dugu berrespena.

LA CABALGATA DE AYER
Don Terencio y Doña Tomasa fueron recibidos dignamente por el pueblo de Bilbao

Un brillante éxito de la Radio Emisora Bilbaina

De las fiestas agosteñas que celebraba Bilbao hace unos años –circunscripto todo a unos festejos taurinos que a buena parte del pueblo no interesaban- a las que hoy celebra la villa existe la diferencia que va de lo general a lo particular...

Ayer celebró Bilbao, por inspiración de la Radio Emisora Bilbaina, que con tan gran acierto ha sabido llevar a la práctica un festejo popular que, celebrado ayer, quedará para siempre en las fiestas de la villa merecidamente.

Los jóvenes de hoy teníamos una vaga idea del don Terencio y doña Tomasa que en los ratos de buen humor, y tatareando, recordaban nuestros abuelos.

Don Terencio y doña Tomasa, con la prosopopeya que corresponde a tales personajes, reaparecieron ayer en las calles de la villa escoltados por los jocosos cabezudos y seguidos por muchos miles de ojos de chicos y grandes...

(...) todo ello y aquellos dos encantadores cortejos de boda vasca –que ya al padre Donostia inspiraron unas páginas delicadas y exquisitas de música-, que fueron, para nuestro gusto, lo mejor del brillante desfile....

Después como decíamos antes, y con todo su tipismo, con todo su carácter, dos cortejos de boda vascos: no faltaban en ellos ni esos ligeros detalles que a los no habituados a presenciar exhibiciones semejantes suelen escapar.

Desde el ajuar de los esposos en la carreta de bueyes hasta el indiano de onza de oro en la gruesa cadena del mismo metal; desde los novios, jóvenes y emocionados, hasta el alguacil, personaje importante en la aldea-pueblo; desde el acompañamiento hasta los regalos, todo estuvo perfectamente bien. Tanto, que el público estalló en ovaciones a su paso, premiando de esta manera el recuerdo de la Radio Emisora Bilbaina a la cosa típicamente vasca, tan grata al pueblo de Bilbao.

Eta *El Nervion* egunkarian (1934-8-20) xehetasunak. Euskal ezkontza bik hartu zuten parte, lekeitiarrak eta mungiarrak. Lekeitiarrak Kaxarranka eraman zuten eurekin baina ezin izan zituzten mungiarrak garaitu.

FALLO DE UN JURADO
El fallo del Jurado calificador del mérito de las carrozas que tomaron parte en el desfile del pasado sábado, ha sido el siguiente:

Los premios de los cortejos nupciales han sido así otorgados:

1. De 600 pesetas al cortejo de Munguía.
2. De 400 pesetas al cortejo de Lequeitio.

Los tres premios, al no presentarse más que dos cortejos, han sido, haciéndose con el importe total los dos anunciados.



Ahora, 1934-8-21

1 LUA/Udal aktak, 1934-8-13: "Leida la atenta invitación que cursa la Radio Emisora Bilbaina para los festejos que habrán de celebrarse en Bilbao los días dieciocho y diecinueve del actual, el Ayuntamiento adopta el acuerdo de comisionar al Sr. Alcalde para que concurra a los expresados actos en representación del pueblo de Lequeitio y le faculta al objeto de que resuelva cuantos extremos se planteen con relación a este asunto y designe si es menester, algunos otros señores Concejales que asistan a Bilbao si la importancia del festival lo aconsejase.
Vista la instancia que suscriben varios señores interesados en la organización de la "Boda a la antigua usanza del País", el Ayuntamiento adopta el acuerdo de concederles la subvención de doscientas cincuenta pesetas que servirá para encabezar la lista de donantes con destino a la concurrencia del Cortejo al desfile organizado por Radio Emisora Bilbaina, si bien se impone a dicha boda la condición de que realice una exhibición por las calles de Lequeitio uno de los días de fiestas patronímicas de San Antolín, fundándose la aportación del Ayuntamiento en la convicción de que la presencia de la comitiva lequeitiana en el desfile de Bilbao constituirá un éxito y una interesante propaganda de Lequeitio".



Muchachos lequeitianos simulando una boda vasca, 1913
Algorta familiaren albuma





Rufo Atxurra artxiboa

Beste argazki honetako euskal ezkontza lotsagabeagoa da. Horko emakume bat baino gehiago gizonezkoa da. Argazkia Solanotarren Mendexako etxe inguruan atera zela uste dugu eta “antzezleen” artean Adan de Yarzatarrak antzeman ditugu –ez gaude seguru-. Noizkoa izan daiteke? 1910eko hamarraldi horretakoa dirudi… Edozelan ere, argi dago euskal ezkontza modura mozorrotu direla eta mozorrotu hitza apropos aukeratu dugu. Badirudi euskal ezkontzak parranda eta jolasetik zerbait serioagora pasatu zirela.



Baliteke argazki honetan agertzen den ezkontza benetakoa izatea.
Lekeitio bistara. Ajubita-Garavilla familiaren artxiboa